

Nafarroako Parlamentuak muzin egin dio hizkuntza eskubideak bermatzeko lanpostuen afera tratatzeari

- **Urtarrilean UEMAk eta Behatokiak salatu zuten ia ezinezkoa egiten dela Gobernuko edozein tramite edo arreta euskaraz jasotzea**
- **Parlamentuak ez du onartu herritarrekiko zerbitzu guztietan euskarazko arreta bermatze aldera lan-postu elebidunak ezartzea**
- **UEMAk eta Behatokiak adierazi dutenez, “nahitaezkoa eta urgentea da merezimenduen dekretua herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira erregulatzea. Garaiz gabilta aurkeztu den zirriborro hori atzera botatzeko”**

Pasa den urtarrilean UEMAk eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Nafarroako Parlamentuan egindako salaketaren harira, Nafarroako Gobernuko Departamentu guztietan euskarazko zerbitzua eta arreta eskaini eta egoitza elektronikoa tramite guztiak euskaraz egin ahal izatea eztabaidatu da gaur Parlamentuan.

Izan ere, herritarrek tramite elektronikoen %23 soilik egin ahal dituzte euskaraz, eta udalen kasuan ehuneko %2,5era jaisten da. Departamentuetako edozein tramite edo zuzeneko arreta edo arreta telefonikoa jasotzean ere ia ezinezkoa egiten da euskarazko zerbitzua jasotzea eta zenbaitetan albo kalte-ondorioak jasan behar izaten dira.

Gaur Nafarroako Parlamentuko alderdiek ondorengo onartu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Gobernuaren beraren eta honen erakunde autonomoetako egoitza elektronikoko edukiak, tramitazioak zein bestelako jarduerak modu integralean euskaraz egin ahal izanen direla bermatzea, helburu hori lortzeko beharrezkoa den plangintza eginez.
2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurreikus dezan, egoitza elektronikoa tramite zein bestelako eginbideak euskaraz egin ahal izateko, dauden beharren ebaluazio bat egitea Departamentu bakoitzaren hizkuntza planean.

Aldiz, ez da onartu herritarrekiko zerbitzu guztietan euskarazko arreta berdintasunean bermatze aldera Departamentu bakoitzaren hizkuntza planean beharrezko lan-postu elebidunak ezartzea.

“Dekretu zirriborroa atzera botatzeko garaiz gabilta”

UEMAko ordezkari eta Berako alkate Aitor Elexpuru eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendari Agurne Gaubeka Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkuran izan dira gaur, ezbaidea bertatik bertara jarraitzen. Amaieran, adierazpenak egin dituzte hedabideen aurrean, parlamentuaren atarian. Nabarmendu dutenez, “departamentuetan euskaraz zerbitzuak emateko gaituak dauden lanpostuak ezartzen ez badira, ezin daitezke bermatu euskarazko arreta ezta tramite elektronikoa

guztiak euskaraz egon ahal izatea. Eta noski, hori Nafarroa osoan egin behar da. Horren adibide argia dugu udalerrri euskaldunena, non lege babes handia duten arren, 15 urtetan tramiteen %2,5a bakarrik egin ahal duten euskaraz, batik bat, zerbitzu zentralak eremu mistoan kokatuak dituztelako”.

Elexpuruk eta Gaubekak gogoratu dutenez, bestalde, “arreta ez da soilik telefono edo leihatila zehatz batzuetan dauden lanpostuetan ematen. Departamentu guztiek dituzte herritarrekin nolabaiteko harremanak eta beraz, departamentuz departamentu hartu behar dira neurriak bakoitzaren osotasunean. Horregatik, beharrezko lanpostu elebidunak ezartzeaz gain, nahitaezkoa eta urgentea da merezimenduen dekretua herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira erregulatzea. Oraindik garaiz gabiltza funtzio publikoaren mahaian aurkeztu den zirriborro hori atzera botatzeko”.

Gaubekak adierazi duenez, “ezin genitzake gaurkoa bezalako erabakiak hartu, lanpostu eta deialdietan neurri egokiak hartu gabe, adierazpen hutsalek ez dituzte Nafarren eskubideen aitortza, kohesioa eta justizia bermatzen”.

Nafarroa osoko herritarrei deia

Azkenik, UEMAk eta Behatokiak dei egin diete Nafarroa osoko herritarrei beraien eskubideak aldarrikatu eta zerbitzu eta tramite guztiak euskaraz egin ahal izatea eskatu dezaten eta, hala bermatzen ez zaienean, Hizkuntz Eskubideen Behatokira jo dezaten urraketa kasu bakoitza dokumentatze aldera. “Gaurkoa bezalako adierazpenei konpromiso zehatzak exigitzeko eta eskubideen urraketan betikotzea normalizatu ez dezagun”.

